



AMAIA ZENTROA
Benito Perez galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.com
945010505

Uholdea BECen

Manex Agirre

2014

Urte berri bat, ehun ilusio,
Preparatu zaitezte!...
Pinganillotik esan digute
Oso fuerte datorrela



Txapelduna pantailan, lagunak begira (iturria: bertsozale.com)

Aurreko alean genioen: zein azkar pasatzen diren lau urte, my friend. Eta egia da; izan ere, hilabete batzuk pasatzen ditugu BECen bizitakoa barneratu eta mastekatu nahian, eta nahi orduko, badator berriz Txapelketa Nagusia, eta BECera begira jartzen gaitu berriro... Eta tartean zer dago? Ein?

Lasai, ez dezagun gure burua engaina: tartean ezin konta ahala gauza daude. Herrialdeetako txapelketak, batetik; plazak, sariketak, saio bereziak, hitzaldiak, Bertxoko... Tartean dagoen hori dena gabe, ez legoke BECik. Argi daukagu hori. Izeberg-aren punta, horixe da irudirik onena: bertsoaritzaren egunik ikusgarriena, baina horixe, egun bat bakarrik. Izeberg guztietan, ur azpian dago benetako materiala, benetan balio duena.

Igandean bizitakoa begi atzean gordeta geldituko zaigu, han egon ginenoi. Hotz-hotzean begiratuta, kanpotik, kultur ekitaldi bat besterik ez da, ikuskizun bat. Kalitate handiko ikuskizuna (aurtengo finala bereziki nabarmendu dute aspektu horretatik: maila altukoa izan da, askoren iritziz orain arteko finalik onena), baina ikuskizun bat azken finean. Beraz, zerek egiten du ezberdin, kontzertu batetik, edo antzerki-emanaldi batetik?

Dударик ez dago: publikoak. Ikus-entzuleen eta artisten artean dagoen muga oso fina da: mikro-oin bat eta www.bertsozale.com jartzen duen karteltxoa, besterik ez. Beñat Gaztelumendik ederki esan zuen, bazkaltzera joan aurretik, aurrez kantatutako kartzelako gaiari erreferentzia eginez: alde baten saioaren bitartean, baina alde berean saiotik kanpora. Horixe da diferentzia: BECera, jendea bertsoak entzutera doa, nagusiki, baina baita bertso-lariekina eta bertsozaleekin egotera ere.

Zorionak, bihotzez, Amets Arzallusi: sekulako lana egin zuen igandean. Gainontzeko zazpiei ere bai, eta gainontzeko 13.500ei ere bai, noski.

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera





Txu, txu, txu...! Eta final handia Agurainera heldu da!

Bertxoko 2013ko trenak Eskuernaga, Izarra eta Kanpezuko herrietatik igaro eta gero azken geltokia! Aguraingo Iguaran Elkarte, leku bikaina, bertan bizi ere egin daiteke.

40 bat bidaiari elkartu ginen Laubeko makinistek prestatutako afari goxoa dastatzeko asmotan, tropel batek afalduko zuela uste zuten eta 365 pertsonentzako menua prestatu zuten, dena jaterik ez genuen lortu. Pena, ederra baitzegoen!

Baina lasai, herri honetan sobrak ez dira botatzen, hurrengo egunean Aguraingo biztanleen erdiak purea, haragi gisatua eta natilla jan zituzten.

Hara! Trena garaiz hartzerik ezin izan zuten eta Kutxin bokadillua afaldu behar izan zuten 10eko lagun kuadrilla agertu da atetik, baina saioa ikusteko garaiz.

Afalostean... txun-txun, txun-txun, final handia heldu zen! Prest 6 arabarrak, sei "pikadoreak" gertu Bertxoko Crew-k antolatutako desafioari aurre egiteko! Ea nor "pikatu" bidaia txartel gehiago!

Bikoteak hauexek: Izar Mendiguren, Jagoba Apaolazaren ordezkari eta Ander Solozabal, Jon Ruiz de Pinedo alias Jonpi eta Ruben Sanchez eta azkenik Oihane Perea eta Iker Pastor.

Izar eta Anderrek eman zioten hasiera Bertxoko finalari kitarra eta kutxa flamenkoa eskuetan hartuta hainbat abesti ezagunen doinuak joz. Jacobak flamenkitoa jakin ez eta Andaluziara joan behar izan zuen ikastera eta Jonpi eta Rubenek "Guk euskaraz" kantuaren kale eskale bertsio bat egin zuten, tronpeta ikusezina hartu eta... *Gu bertsotan, zu zergatik ez, belarririk gabe kantatzen dut hala edonola, niri bost axola*

Oihanek eta Pastorek "Una piedra en el camino" mariatxi doinuak ekarri zizkiguten Mexikotik Iguaran Elkarteraino, frijoles ze gustura!

Zortziko handian Izarrek, Jonpik eta Pastorek, tartalari papera egokitu zitzaizkien, Nafarroako presidenteari tarta aurpegira bota ostean epaiketa aretoan zeudelarik.

Jonpi: *Tarta gutxi daude munduan ta/ ere aurpegi gehiegi*

Pastor: *pastelak beti izaten dira/pailazoei botatzeko*

Asmakizun eta bestelako ariketen ostean, kartzelako lanaren unea heldu zen. Bertan Jonpik eta Rubenek osatutako bikotea nabarmendu zen. Ale ederrak eta umorea nahi beste eduki zuten bertaratuek lan puntuagarrien amaieran. Kartzela egoera emanda (komunean bat, bestea atean):

Ruben: *Taberna baten parrandan nago/ ... /zerbeza pila edan dut eta/orain txizakin dut ginda/ .../etxetik beti irten behar da/etxean kaka eginda*

Jonpi: *Etxetik irten aurretik ere/hantxe gin dut nik kaka/Pote bat hartzen negoen barran/ta tripa barrua ataka/komunera sartu naitz korrika/eta utzi dut ba marka/lasai itxaron lagun maitea/hau luzerako doa ta*

Jonpi: *Ate azpitik pasako dizu/ta joan parke batera.(papera pasaz)*

Ruben: *Txizta egitera nentorren baina/txabala ere botako dut*

Bukatzeke Jonpik: *sartu nabi baduzu orain baina/ ez dizut rekomendatzen*

Lanak bukatuta txapel gabeko txapeldun bilakatu ziren Jonpi eta Ruben pikadoreak. Aho zapore goxoz geratu ziren hurbildu ziren bertsozaleak, hurrengo urteko bidaiarako erreserba egin!!

Eskerrik asko trenean igo zareten bidaiariok!



Audiolandiako kontuak

Baziren behin, Audiolandian, lau mutikote: Jack, Canon, RCA eta Minijack, ligatu nahi zutenak Grabagailu txuri txiki eta polit batekin. Grabagailuak lauren artean aukeratzeko parada zuen, ze zorte! Baina ez zen erraza izan. Hor zegoen Jack estilosoak, zuzena eta handia. Canon, ze kalitate, ze dotorezia... RCA bitxikeria bat zen, exotikoa, zuriz eta gorritz jantzita. Eta Minijack txikia, bizkorra eta edozeinekin ondo moldatzen zen. Grabagailuak ahuldade bat zeukan; kolorea! Beste hirurak beti beltzez jantzita... baina RCA, RCA gorritz eta zuriz jantzita ummmmm! Ze tentazioa, ze bonboia!! Eta ezin aguantatuz RCA aukeratu zuen, zeuzkan gorri eta zuri kolore bizi horiengatik.

Uaaaa! Ze sentsazioa bertsolarien audioa sartzen hasi zeneannnnn, ze gozamenaaaa. Ze konekzioaaaa... Eta tak! Grabatuta geratu zen, erregistratuta, betirako, digitalizatuta.

Hori bezalako asko gertatu ziren RCA eta Grabagailuaren artean, zenbat bertsoaldi, zenbat bertso-saio... zoriotsuak ziren, dena ondo zihuan... Baina egun batean USB agertu zen. Tipo benetan arraroa. Orain arte Grabagailuaren lagun guztiak IN ziren baina USB ez, OUT zen. Ummm, zer morboa. - Nolako izango da? Galdetzen zion Grabagailuak bere buruari. Eta egun batean probatu zuen USBrekin. Eta damutu ere bai. Ez zen gauza bera, ez, ez... RCArekin IN egitea beste gauza bat zen eta gainera, Grabagailua konturatu zenerako RCArekin gordeta zeuzkan bertso-saioren audio guztiak lapurtu zizkion USB-k. Diossssss! Probatzeagatik hutsik geratu zen Grabagailua.

USB ez zen fidatzekoa, sare klandestino bateko kidea zen, horrela kontatu zion RCAk gero. Gainera, audioei tratu txarra ematen zieten ere kontatu zion. Baina ez zegoen atzerako bueltarik, USB-ren bitartez audio guztiak ordenagailu batera iritsi ziren. Format Factory teknika torturatzailea erabili zuten audioak mp3 bihurtzeko. Ze desastrea! Ze galera! Nola konparatu WAV eta mp3. Gero esaten dute ez dela diferentzia nabaritzen.

Baina hor ez zen bukatu bertso-saioren audioen via crucis-a. Wetransfer-ekin mp3ak zip bihurtu eta urrun urrunera bidali zituzten, mundu arrotz batera, kaxa, kajo, kutxa eta karpetaz beteriko mundu batera, XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTRORA. Uaaaa! Behin hara iristen direnak ez dira bueltatzen. Eta baten bat bueltatzen bada tatuatuta dauka betirako "Xenpelar Dokumentazio Zentroa". Horrela kontatu zion RCAk Grabadorari, RCA behin egona zen Xenpelar Dokumentazio Zentroan; dena ikusi zuen.

RCAk Grabadorari kontatu zion nola Xenpelar Dokumentazio Zentroan haien arteko audio zoriotsu eta polit horiek moztu, bolu-mena aldatu, isiltasunak kendu eta katalogatu egiten zituzten. Buaaaa! Ze artifizia, denak transgenikoa bihurtu zituzten!! Guztiz desnaturalizatuta!


Eta horrela Grabadorak RCAri esan zion: - RCA, hemendik aurrera zurekin beti IN egingo dut.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila grabadoran eta ager dadila Xenpelar Dokumentazio Zentroan.

(Azaroaren 17an, Murgian, bertso-multimedia ikastaroan egon ziren Arabako 20 lagunek ikasitakoa)

ZERNAHI: BEC, kanbio

Bert



FFFFFFFFFFRRRRHHFFFFFFF... - "Bai, Torrotxo? kanbio" - "Axi, ez esateko kanbio, ostiya, traste moderno hauekin etziok hortako beharrik" - "Torrotxo, ez dizut ondo entzuten, kanbio" - "EZ ESATEKO KANBIO, MELOKOTOYA HI" - "Torrotxo, mesedez, esan kanbio, ni enteratze-ko, bestela gaizki gabilta, kanbio" - "..."- "Torrotxo, hor zaude, kanbio?" - "Axi, nahikua lan zekat terraza zientifikuan daudenei kubatak eramaten. Utziak pakian" - "Aizu, zu benetan zara Torrotxo? Berak beti esaten du kanbio bukaeran. Frekuentziaz nahastu naiz? Ertzaina zara?" - "..."- "Torrotxo? Kanbio" - "Enfin. Bai, Axi, hemen natxiok, ze behar dek, kanbio" - "A, ez, besterik gabe, salu-datzeko zen, kanbio ta korto" - "Ederki, kanbio ta KORTO"

AGENDA

IZAN ZITEKEEN FINALA

**ABENDUAK 21
21:30**

**NARBAIZA:
BERTSO-AFARIA
(15 €)
-ANDONI EGAÑA
-LAUTADAKO BERTSO
ESKOLA**

ANTOLATZAILEAK
LAUTADAKO BERTSO ESKOLA
KOIPE-ENEA TABERNA
Antzokia Foru Aldekoa
Donostia Foral de Arriaga
www.antzokia.net

IZENA EMATEKO: 615758844/667310082

ABENDUAK 27, ARAMAIO. 19:30 KULTUR ETXEAN

**Xabier Silveira, Amets Arzallus,
Unai Iturriaga, Paula Amilburu**

URTARRILAK 17, LEGUTIO. 19:30 KULTUR ETXEAN

URTEROKO BERTSO-JAIALDIA



TXAGOKO JAIALDIA
GASTEIZKO GAZTETXEAN

**20:00ETAN:
BERTSO TABERN
EGURRA TA KITTO**

**23:00ETATIK AURRERA:
RESA AGAINST THE MACHINE**

•TXORRATONBOLA
•PINTXO BEROAK
•EDARI BEREZIA...

U-30

VIII. BECtekada Bertso Jaialdia AMURRIO

Gai-jartzailea: **Narosa Sasietta**

Sarrerak:
Aurretik 6 euro
Amurrioko kultura etxean
Tel: 945 891 450

Antolatzaileak:
Amets Arzallus | Aitor Mendizabe | Behat Gaztelumendi | Maialen Lujanbio | Aitor Sarrigi | Igor Elertza | Sustrai Colina | Unai Iturriaga

Antzokia_n
Urtarrilak 4, ostirala / 20:00etan

AMURRIO IDALA | AMURRIO ANTZOKIA | **bat**